

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2025eko ekainak 6 · 1357 zenbakia




KIROLA EUSKARAZ BIZI URTEROKO ZITA

Aurrea hartu merkealdia

2MÓ 109€

erreflexuen aurkako
betaurreko graduatuak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



MULTIÓPTICAS

943 20 05 22
Bidebarrieta, 2. EIBAR



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multioplicas.com



Asua Carburantes: EFIZIENTZIA, KALITATEA eta EROSOTASUNA guztion eskura

Asua Erreka 11n dago Asua Carburantes, Eibarren. Gasolina-zerbitzugune modernoa da, eskuragarria eta erregaia azkar, merke eta arazorik gabe hartzeko pentsatua. Kalitate handiko erregaiak ditu eta estazioak sarbide eroso eskaintzen du, bai saihesbidetik, bai herriaren erdialdetik (Barakaldo kalea), sarrera eta irteera erraztuz, bezeroen denbora ahalik eta gehien optimizatzeko.



SARBIDE ERRAZAK

- Eibarko erdigunetik
- Ermutik
- Elgoibartik (bariantetik)



Zerbitzu aipagarrienak

- Asua Carburantes-en balio nagusietako bat **efizientzia** da. Bere diseinuari esker, depositua azkar bete daiteke, itxaron beharrik gabe, sistema aurreratu eta intuitibo bati esker. Gainera, eskaintzen diren erregaiak kalitate gorenekoak dira eta horrek ibilgailuaren errendimendu hobea eta ingurumen-inpaktu txikiagoa dakar.

- **Prezioari dagokionez**, tarifa lehiakorren politikari eusten dio, kalitate-prezio erlaziorik onena bermatzeko. Horri erregaiaren gehigarri-sistema eskusibo bat gehitu behar zaio, efizientzia eta motorraren garbiketa hobetzen dituen eta emisioak murrizten dituen, bezeroarentzat inolako kostu gehigarririk gabe.

- **Ordaintzeko moduen malgutasuna** da beste indargune bat. Eskudirutan ordaindu daiteke eta zuzenean terminalean eskudirutan berehala itzultzeko aukera ere eskaintzen da, bulego batera joan edo kupoiak erabili beharrik gabe.

- Asua Carburantes **eguneko 24 orduetan** dago martxan, eta fidelizazio-txartela eskuratu daiteke uneoro euren webgunean. Gainera, orain gutxi, ibilgailu elektrikotarako karga-puntu bat jarri du, mugikortasun jasangarriaren alde eginez. Doako aire- eta ur-makina bat ere badu, erabiltzaile guztientzat eskuragarri.

asuacarburentes.com

ESKAINITZA MUGATUA

Depositoa betetzera koan 30 eurotik gorako gastuarengatik, 5 litroko haizetako-garbigailua **OPARI**



Asua Erreka 11 Eibar

Jarraitu gaitzazu!

www.etakitto.eus



@etakitto



Ekainaren 14an, IPQ Futbol 7 Txapelketaren 4. edizioa jokatu da Unben. Guztira, 40 taldetako 600 lagunetik gora arituko dira futboleko, lehia sana egongo baldin bada ere, jai giroa nagusi izango den torneoan. Unai Arizaga txapelketaren antolatetaz arduratzen den kuadrillako kidearekin egon gara berbetan.

eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Jose Luis Gorostegi,

Silbia Hernandez eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

J.A. Mogel Ikastola

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Murrategi berronerattu orain!

Eibarko **"Behetarrak"** Auzo Elkartek, **Murrategi** auzoko bizilagunen ordezkari gisa, honako hau helarazi nahi dio Eibarko herriari:

1. Murrategi Eibarko ekialdean dago, Azitainen eskuinaldean, Ego ibaiaren beste aldean. Gune ederra eta oso naturala da, baina hirigintzari dagokionez oso degradatua dago. Udala aspalditik da egoera horren jakitun, baina Murrategik berdin jarraitzen du.
2. Izan ere, Eibarko Udalak berak 2016an enkargatutako azterketak eremu degradatu izendatu zuen Murrategi. Horregatik, 2019ko ekainean, Murrategiko Birgaitze Integraturako Plan Berezia (BEPB) idatzi zen, inguruko bizilagunen partaidetzarekin. Plan hori Eibarko Udalean onartu zen osoko bilkuran, 2021eko ekainean.
3. EH Bilduk Espainiako Gobernuarekin 2023ko aurrekontu orokorretan lortutako akordioak 3 milioi euroko laguntza ekonomikoa ekarri zuen Murrategi birgaitzeko. Albiste ezin hobea bertako bizilagunentzat eta Eibarko herritar guztientzat, ilusioz ikusten baikenuen Murrategi auzo degradatua biziberritzeko aukera.
4. Hala ere, bi urte eta erdi geroago (2025eko ekainean gaude), berdin jarraitzen dugu. BEPBan (Birgaitze Integraturako Plan Berezia) ezarritako gauzatze-denborak ez dira errespetatzen ari, eta ez da gauzatu 2023rako aurreikusitako urbanizazio proiektua.
5. Eibarko Udaleko PSEko Udal Gobernuak ez du jakin izan Espainiako gobernuaren laguntza ekonomikoa kudeatzen eta Murrategi biziberritzeko proiektua martxan jartzen.
6. Udal-kudeaketa falta horren aurrean, Murrategiko bizilagunok antolatuta egin gara eta auzokideen kexa bat erregistratu dugu Eibarko Udalean, sinadura askoren babesarekin, alkate jaunari zuzenduta, gai hau behingoz gidatu dezan eta Murrategi biziberritzeko proiektua berehala abian jar dezan.

Behetarrak Auzo Elkartea

Komunikazio eta Gardentasunaren Saria Eibarren

Eibarko Udalak Gobernu Irekiaren Sare Akademikoaren (RAGA España) saria jaso du Madrilen, "Gardentasunean Jardunbide Egoki Onenaren" kategorian, Audaz local 2025 Estatuko sarien lehen edizioan, Komunikazio eta Gardentasun Planagatik (2021-2023).

Eibarko Lurperatzen gaituen paseoari Ez – ekialde Bai auzo elkartetik, ez dugu zalantzan jartzen Komunikazio eta Gardentasun Plana udalaren eta herritarren arteko harremana hobetzeko tresna izan denik, baina uste dugu, oraindik ere, udalak asko duela hobetzeko arlo horretan.

Ez dirudi urrea dir-dir egiten duen guztia. Auzo elkarte-koek askotan jo dugu udaletxera, eta hilabete asko itxaron behar izan dugu egin ditugun galdera batzuei nolabaiteko erantzuna jasotzeko.

Adibide moduan hauxe: 2023an egin genituen galdera batzuei dagokienez, Arartekoak -Jaurilaritzaren Erakundeak-maiatzean, idatzi bat bidali dio Udalari, eta bertan gogorarazi dio udal-administrazio horrek herritarren administrazio onerako eskubidea sustatu behar duela. Eskubide hori honela zehaztuko litzateke: aurkezten diren idazkiak jaso izanaren adierazpena, ofiziozko bultzada eta planteatutako gaietarako arrazoizko epean erantzuteko betebeharra. Gainera, Arartekoak udalari eskatu dio hilabeteko epean auzo-elkartearen galderei erantzuteko eta Arartekoari berari ere erantzuna bidaltzeko.

Saria Madrilen jaso dute, baina Eibarren, agian, jende askok oso bestelako iritzia dugu udalak praktikatzeko duen Komunikazio eta Gardentasun ereduari buruz. Ez gara gu izan, noski, Komunikazioaren eta Gardentasunaren arloko sari baten alde bozkatu dugunak.

Saria aprobetxa dezazuela!

Lurperatzen gaituen paseoari Ez / Ekialdea Bai Auzo Elkartea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PIKUTAN EGON→ Distraiduta egon, gaztelerazko 'estar en Babia'. "Hori be pikutan dago, ez da enterau be egitten".

PIKUTARA JUAN→ Alperrik galdu, hondatu. "Hau txamarriau be pikutara juan da".

1970

Amañako Tigrearen lagunartea

Argazkian Jose (Pepe) Perez Cid, *El Tigre de Amaña* boxeolariaren jarraitzaileek sortutako lagunartekoa, Estrella elkartearen 18 urterekin hasi zen *Tigrea* amateur gisa lehiatzen. Jokatutako 54 borrokalditik 46 irabazi zituen, horietatik sei K.O. bidez. PLAZAOLA



Farmaziak

BARIXAKUA 6
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ZAPATUA 7
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 8
EGUNEZ Mendingueta (Urkizu, 6)
ASTELEHENA 9
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
MARTITZENA 10
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
EGUAZTENA 11
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUENA 12
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
BARIXAKUA 13
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- Ana Maria Alberdi San Pedro.
80 urte. 2025-05-31.
- Jesus Ortega Diez.
81 urte. 2025-05-31.
- Francisco Fernandez Lara.
84 urte. 2025-06-04.
- Ibon Bergaretxe Beretxinaga.
53 urte. 2025-06-04.
- Juan Carlos Castañeda Agirre
64 urte. 2025-06-04.



Azken aldiko manifestaziorik jendetsuena egin da Palestinarentzat bakea eskatzeko

Ehundaka herritar irten ziren kalera domeka eguerdian, *Palestina askatu. Ez nire izenean* goiburuari jarraituz Untzagatik abiatu zen manifestazioan. Eibar Palestinarekin eta Eibarko Gerrarik Ez taldeek antolatuta zuten mobilizazioa, “Gazako genozidioa eta Palestina osoan zehar gertatzen ari diren eskubideen urraketak salatzeke”. Kaleak zeharkatu eta gero, Un-

tzagan amaitu zen ekitaldia, eta bertan Marwa Osmanen olerkia eta manifestu bat irakurri zituzten. Gertatzen ari dena salatzearekin batera, Eibarko Udalaren gobernu taldearen jarrera kritikatu zuten, “besteak beste hormairudi bat egiteko baimenik ez duelako eman eta, gainera, ez duelako laga maiatzeko plenoan mozio bat aurkeztzen”.

Sanjuanetako marmitako lehiaketarako izen-ematea zabaldutute

Sanjuanetako XXX. marmitako lehiaketarako deialdia egin du Eibarko Udalak, eta izena emateko epea ekainaren 18ra artekoa da. Lehiaketa ekainaren 25ean izango da, 11:30ean Untzaga plazan. Izen-ematea Udalaren webgunean eskuragarri dagoen formularioaren bidez egin behar da, eta informazio guztia ere bertan kontsultatu daiteke.



1975. urtean jaioetakoen festarako izen-ematea zabaldutute

Urriaren 18an ospatuko dute 1975. urtean jaioetakoen beraien festa handia. Egun osoko ospakizuna izango da, eta urte horretan jaioetako guztiak parte hartzera gonbidatuta daude. Izena emateko 100 euro ordaindu beharko dira kontukorrante honetan: BBVA – ES87 0182 5297 2502 0116 4779. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, ordainketa egiterakoan izena, abizen bat eta telefono zenbakia adierazi beharko dira (kontzeptuan). Bestalde, muga duten plazak dira: hau da, jatetxeke gehieneko edukiera (185 lagun inguru) betetzen denean, edo urriaren 1ean amaituko da izena emateko epea.

Andaluziako festa-giroa nagusituko da domekan Amaña auzoan

Dantzak, musika, bazkaria, moda desfilea, zozketa... Egitarau zabala antolatu dute *Amaña es la caña* elkarteek domekarako. Eguerdian hasiko da *Feria Rociera* jaialdia, eta egun osorako programa prestatu dute. Eibarko zein beste herri batzuetako taldeen dantza erakustaldiak egongo dira, besteak beste.

UNIVERSITY OF CAMBRIDGE



Eibarko dendetan deskontuekin erosteko bonuen kanpaina berria martxan

Aste honetan ipini dute martxan Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bonu-txartelen kanpaina berria. Beste batzuetan bezala, merkataritza- eta zerbitzu-sektoreetako deskontuak eskainiko dituzte. Merkataritza- eta zerbitzu-establimenduetako erosketa-bonuek 40 euroko kostua dute, eta 50 euroko balioa duten erosketak egiteko erabili ahalko dira. 98 establezimenduk hartuko dute parte kanpainan

(zerrenda www.erosieibarren.eus webgunean kontsultatu daiteke). Bestalde, bonu-txartelak on-line bakarrik erosi ahal izango dira, aipatutako webgunean. Ekainaren 26an amaituko da bonuak erosteko epea (aurretik amaitzen ez badira), eta ekainaren 30era arte erabili ahalko dira. Udalak diruz lagunduta, eta Nafarroako Rural Kutxarekin lankidetzan antolatuta da ekimena.



Eibarren ospatuko da bihar Baso Bizien Eguna

Bihar ospatuko da urtero antolatzen den Baso Bizien Eguna, eta aurten Eibarren egingo da. Unbeko kiroldegian elkartuko dira, 09:30ean, eta handik mendibuelta egitera abiatuko dira. Arduradunen berbetan, “Eibarko Baso Biziak elkartearen inguruko nondik norakoei buruz hitz egiteaz gain, beste herrietako proiektuen berri jasotzeko aukera izango dugu. Animatu, egun polita izango da eta!”. Bakoi-tzak bere janaria eraman beharko du, eta izena emateko basobiziak-plataforma@gmail.com helbidera idatzi daiteke.

Jarrera patriarkal, matxista eta LGTBIQA+ fobikoei buruz aritzeko gizon-talde berria

Eibarko gizon batzuk elkartzen hasi dira, “gure baitan zein inguruan atzematen ditugun jarrera patriarkal, matxista zein LGTBIQA+ fobikoen aurrean dugun arduraz jabetzeko. Horretarako, hainbat talde-dinamika gauzatzen ditugu, betiere ikuspegi pertsonaletik abiatuta. Norberaren esperientziak, bizipenak eta sentimenduak partekatuta, maskulinitatearekin dugun harremana aztertu, eta hau taldean lantzeko espazio bat sortu nahi izan dugu, betiere ikuspegi feminista oinarritzat hartuta”. Taldeko inork ez

du formakuntza feministarik jaso, baina badute “gai hauekiko jakinmina, ikuspegia aldatzeko prestutasuna, gizonon artean bestelako harremanak eraikitzeko beharra eta erantzukizuna hartzeko borondatea”.

Orain gizon guztiei zuzendutako gonbidapen zabala egin nahi dute, “adin, jatorri, orientazio sexual, genero identitate eta klase soziala edozein dela ere”. Interesa izanez gero, 616 827 057 telefono zenbakira deituta jar daiteke taldearekin harremanetan.



Ipuruako igerilekua itxiko dute gaur arratsaldean

Igeriketako San Juan Saria dela eta, Ipuuako kiroldegiko igerilekua gaur 19:15etik aurrera itxita egongo dela jakinarazi dute arduradunek, eta erabiltzaileei eragozpenak bar-katzeko eskatu nahi diete.



Euskal Herriko Torturatuak Sareko kideak testigantzak jasotzera etorriko dira

Euskal Herriko Torturatuak Sareko kideak Eibarren egongo dira datorren astean, torturaren testigantzak jasotzeko. Asmo horrekin egongo dira eguenean (ekainak 12), 18:30etik aurrera Arrate Kultur Elkartean. Adierazi dutenez, “otsailean sareak eratu genuenetik, torturen lekukotasunak jasotzen hasi ginen. Jakin badakigu eskatzen dugun ariketa ez dela batere erraza, ariketa horrek iraganera bidaiatzea eskatzen baitigu, utzi

zizkiguten zaurietan aztarrika ibiltzea, eta ez, ez da erraza. Horregatik ekainaren 12an eskainiko dugun gunea eroso izatea nahi dugu, nahi duenak bere testigantza eman dezan”. Sarea eratu zutenetik gaur arte, tortura jasan duten 700 lagun baino gehiagorekin elkartu dira, eta torturatu guztiak batzeko deia egin dute, “Euskal Herrian torturak jasan dako inor prozesu honetatik kanpo gera ez dadin”.

Goizeko 11:00etan abiatuko da Untzagatik biharko martxa solidarioa

Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkartearen martxa solidarioaren 4. edizioa egingo da bihar Eibarren. Hiru kilometroko martxa 11:00etan hasiko da, Untzaga plazan, eta amaiera ere han izango da. Aurretik, 10:30ean, Kaxa Mugimendu eta Sormen Guneak zumba saioa eskainiko du nahi duten guztientzat, beroketa gisa. Aurreko edizioetan parte-hartze zabala izan du ekitaldi solidario honek, eta bihar ere hala izatea espero dute antolatzaileek.



BPTD enpresa-elkartek batzarra egin du

Basque Precision Technology District enpresa-taldearen urteko batzarra egin zen aurreko barixakuan Debegesako instalazioetan. 60 lagun bildu ziren, tartean industria-enpresetako, erakunde politikotako eta Debegesako ordezkariak. Batzarrean Cristina Zumeta Idazkaritza Teknikoko arduradunak eta Sara Abad elkarteko diruzainak urtearen itxiera egin zuten, eta proiektu berriei buruz aritu ziren berbetan.





PUBLI-REPORTAGE







Urteetan itxita egon arren,
Arragueta kalean egon zen
Tocayo tabernaren kartelak
bere betiko tokian jarraitzen
du. SILBIA HERNANDEZ

Sasoi batean Eibarren
oso ezaguna izan zen eta
gaur egun ere abesten den
“Hiru gizon ilustre” kanta
ezaguna, Asun Anguerak eta
Jose Sarasuak elkarrekin
abestuta. Kantuan aipatzen
den Tocayo Eibarko taberna
bat izan zen.

“Hiru gizon ilustre” kanta

Asun Anguera Illarramendi
(1928 – 2011)



Gerra Zibilaren aurreko urteetan hain ezaguna eta berezia zen Arraindegi kalean jaiotako emakumea. Gerra sasoiaren umea bazen ere, ondo gogoratzen zituen orduko hainbat pasarte. Antzinako Eibar ondo ezagutzen zuen, berez entzun eta ikusitakoaz gainera, etxean gurasoengandik ere hainbat konturen berri izan zuelako. Aita bezala, musikarako zaletasun handikoa eta ahots ederrekoa, kantuzale handia. Udalak kaleratutako Eibarko kanten liburuxkan, laguntzaile ezinbestekoa gertatu zen. *Voces y cuerdas* taldeko abeslari ere izan zen.

**Asun Anguerari grabatutako
pasarteetako baten transkripzioa**

Hiru gizon ilustre itturri bidetik
Mozkor-mozkor eginda Elgeta kaletik,
Aulestik heltzen zion Loperi lepotik
Ez muzturrez aurrera ez eroriagatik.

La esposa decía egina gaittikan:
-No le puedo sacarle Tocayonetikan.
Porque le gusta mucho napar beltzetikan
No le gustará tanto Urkusuko urikan.

Urkusuko itturrixak baleki berbetan
Zerbait esango leuke astelehen goizetan. (bis)
-Politxa kantua.

Txistularien Alardea, Orfeoi eta guzti

Eibarren lehen txistulari banda bat sortu zela 90 urte beteko dira aurten eta, hori ospatzeko, Txistularien XXIII. Alardea egingo da ekainaren 15ean, 12:30ean Untzagan. Berezi-berezia izango den ekitaldiaren aurkezpena aste honetan egin dute Jon Iraola alkateak, Andoni Zabala Kultura zinegotziak eta Enrique Montero Usartza Txistulari Taldeko zuzendariak.

Untzaga plazan 150 musikari, dantzari eta korukide baino gehiago elkartuko duen ekitaldia antolatzen hilabeteak daramatzate: “2024ko udaren ondoren ekin genion lanari. Donostiako Orfeoia-rekin harremanetan jarri ginen eta, hauek gure proposamena onartu eta gero, gainerako parte-hartzaileekin kontaktuan jartzen joan ginen. Lehen entseguak 2025. urtearen hasieran, Danborradaren kontzertua eman ondoren izan ziren, eta azken-aurrekoa zapatuan egin genuen, Eibarren. Emanaldiaren aurretik beste entsegu orokor bat egingo dugu, seguruenik Donostian”, azaldu digu antolaketa-koordinazio lanetan diharduen Enrique Monterok.

San Juan jaien inguruan egingo den emanaldiak ordezkaritza artistiko zabala izango du, Donostiako Orfeoia-ren parte-hartzeak aipamen berezia merezi du: “125 urte-

tik gorako ibilbidea duen taldea da eta, amateurra izan arren, dedikazioa profesionala da. Eraitza aski ezaguna da: emanaldi paregabeak, ehun obra sinfoniko-koral baino gehiagoko erreperitorioa, eta ospe aparta nazioartean”.

BIDEOA
IKUSGAI





>>> Mimo handiz prestatzen ari diren emanaldiarekin urteetan Usartza Txistulari Bandako zuzendaria izan zen Elena Perez omendu nahi dute taldekide eta lagunek



Goian, Usartza Txistulari Taldea eta Musika Eskolako txistu ikasleak. Azpian, berriz, ondo ikusten da txistuak sasoi hobeak ezagutu zituela gurean. 1966ko maiatzaren 22an egin zen kalejiran zihoan MILA GORRITIK ekarri digu.

Musika Eskolako txistu-ikasleak, herriko metal boskoteak (Unai Cabanzon, Danel Montero, Iñaki Orbegoza, Markel Uribarren, Jesus Rioja), teklatuak (Isabel Laspiur) baxu elektrikoak (Aitor Moreno), perkusioak (Asier Rodriguez eta Pablo Zubiaurre), eta Kezka eta Neledantza taldeek hartuko dute parte. Zuzendaria, berriz, Euskal Herri mailan txistulari ezaguna den Garikoitz Mendizabal izango da,

Errepertorio zabala eskainiko dute: “Estilo eta erritmo ezberdinetako obrak interpretatuko ditugu: doinu herrikoiak, Vangelis, Kalakan, kabareta, Mikel Laboaren abestiak, eztei dantza, fandangoa eta arin arina, Ennio Morricone... Doinu horiek, zalantza barik, publikoa kantatzera animatuko dute. Gainera, ikuskizuna alaituko duten dantzak egongo dira. 150 musikari, abeslari eta dantzaritik gora arituko gara, bertaratutakoen gozamenerako”.

Alkatearen berbetan, “Alarde honen omenaldia egin nahi zaie Eibarren txistuaren musikari hainbat belaunalditan bizirik eutsi diotenei. Eta Usartza Txistulari Taldearen pasioa eta esfortzua eskertu nahi dugu, tradizioari eusten jakin izan duelako, baita garairik zailenetan ere”. Andoni Zabala Kultura zinegotziak herritar guztiak gonbidatu ditu “historia, musika eta sentimendu kolektiboa batzen dituen ekitaldi honetara”.

ENRIQUE MONTERO • Txistularia eta irakaslea

“Eibarren sei edo zazpi txistulari banda egon ziren aldi berean”

2001ean sortu zen Usartza Txistulari Taldearen zuzendaria izateaz gain, txistu irakaslea da. Usartza taldean hasierako ilusioarekin jarraitzen duten arren, erreleboa falta dela-eta kexu dira. Belaunaldi berriak txistura gerturatzea premiazkoa dela uste du.



Nolako emanaldia izango da?

Programa oso polita izango da, Orfeoia asko beteko du, eta aukera polita izango da Orfeoia dohain, hemen, Untzaga plazan ikusteko. Doinu asko ezagunak izango dira eta, izan euskal dantzak edo izan dantza modernoak, ikusteko moduko ikuskizuna izango da.

Nolakoa izan da txistuaren bilakaera Eibarren?

Lehen txistulari banda 1935. urtean sortu zen. Ondoren Eibarren akademia bat sortu zen, parrokiaren lokal batean, eta hor Juanito Larrinaga, Jose Luis Perez Sarasketa eta beste batzuk izan ziren klaseak ematen. Jende asko hasi zen txistua ikasten. Mireia Astiz udal-txistulari banda batean parte hartu zuen lehen emakumea izan zen. 70. hamarkadan ikasle asko zeuden, eta 90. hamarkadan 200 edo 300 txistulari egongo ginen Eibarren. Batzuk udal-txistulari bandan geunden: Jose Miguel Laskurain, Elena Perez, Asier Castelos, ni neu..., baina bazeuden beste sei bat banda: Birigarroak, Txantxangorriak... Amaia Baglietto, Elena Perez, bere anaia Evaristo, nire anaia Eduardo eta Ernesto Montero... jende asko.

Eta zer gertatu zen talde haiekin?

Pixkanaka-pixkanaka desagertzen joan ziren, eta gaur egun gaudenak geratu ginen. Usartza Txistulari Taldean zazpi kide gara: neu, lehen txistu zuzendari bezala; bigarren txistuan Iratxe Gimenez eta Leire Arribabalaga; silbotean Asier Castelos eta Jabier Zorrakin; atabalan German Ereña; eta atabalan, perkusioan, eta batzuetan tronpan, Iñaki Orbegozo.

Gazteak ez dira animatzen txistua ikastera, ala?

Gutxi, baina eskertzekoa da Musika Eskolako txistu ikasleen ahalegina. Sanjuanetan, Danborradako kontzertuan, Alardean ere parte hartzen dute. Eta lan asko egin dute emanaldi hau prestatzeko. Gazteek beste modu batera disfrutatzen dute asteburua, eta konpromisoa hartzea zailagoa da.

Zaila da txistua jotzen ikastea? Badu berezitasunik?

Nik ez dut esango zaila denik, baina haizezko instrumentua da, eta hori da pixkat kontrolatu behar duguna: haizea, eztarriko kolpeak, mingainaren artikulazioa... Baina ikasle txikiek oso erraz hartu dute.

“Gure Zirkuaren karpan sartzerakoan mundu magiko batean murgiltzen zara”

IKER GALARTZA • Gure Zirkua



Zortzi urtez Euskal Herriko hainbat txokotan egon ondoren, Gure Zirkua Eibarrera iritsiko da ekainaren 20an. Arrateko zelaian jarriko dute karpa eta uztailaren 3ra arte iraungo du bertan sortuko den magiak. Guztira 11 emanaldi eskainiko dituzte eta sarrerak salgai daude dagoeneko www.gurezirkua.eus atarian.

Joseba Usabiaga eta Iker Galartza aktoreak dira Gure Zirkuaren lantaldeko aurpegiak ezagunenak. Aurkezle-lanak egiten dituzte eta bidea ematen diete arlo ezberdinetako artistei, publikoa zirkuaren munduan murgilduarazten duten magia sortzaileei. Beraz, eibartarrentzat hain berezia den tokian ikuskizun gogoangarriaz gozatzeko aukera izango dugu.

Zortzi urte daramatzazue biraka eta azkenean Eibarrera iritsiko zarete. Nolakoa izan da Gure Zirkuaren bidaia?

Bai, zortzi urte dira dagoeneko! Batzuek esan zezaketen pixka bat nekatuta egon gintezkeela, baina gezurra izango litzateke, hasierako ilusio berarekin jarraitzen dugulako. Egia da orain atsedena hartzetik gatozela. Zirku batzuek ez dute atsedenenik hartzen, baina ikusi genuen Europako batzuk gelditu egiten zirela negu inguruan, giro euritsu eta hotzarekin zirkua nahiko desatsegina bihurtu daitekeelako, eta guk ere gelditzea erabaki genuen. Beraz, hiru hilabeteko atsedena hartu genuen eta Aste Santu inguruan berriro ere jarri ginen martxan, Gabonak arte. Orain, Gure Zirkua osasuntsu eta gogoz dago. Elkarrizketa azaroan egin

izan bagenu, denboraldia amaitzeko gogoz geundela esango nizuke.

Zortzi urte hauetan aldaketak egon dira taldean? Berritasunak gehitzen joan zarete?

Urtero gehitzen ditugu berritasunak. Beraz, iaz saio bat ikusi zuena Arratera joaten bada, ikuskizun berri bat ikusiko du. Hori da gure merituetako bat: jende beretsuarekin gauza berriak sortzea. Egia da, bestalde, orain dela zortzi urte gurekin hasi ziren batzuk jada ez direla ari gurekin. 40-50 urte inguru zituzten gurekin hasi zirenean, Euskal Herritik kanpo zirkua egin izan-dakoak ziren (Edinburgon, Londresen, Bartzelonan...) eta esan daiteke erretiratzera etorri zirela gurera. Zortzi urte hauetan jende gaztea sartzen joan da eta, badakizu, gazteek freskura, indarra eta zoramen txikiak ekartzen dituzte. Batzuetan frenatu egin behar ditugu, baina batzuen esperientziatik eta besteen indarretik oso konbinazio ona irten da.

Zuen aurretik ez zegoen zirkua euskaraz egiten zue-nik eta zirkuan aritzeko aukera eman diezue hainbat gazteri.

Bai, aukera eman diegu hainbati, baina pena da zirkuan aritu nahi duten guztiei aukera eman ahal ez izatea. Zirk-uak arlo asko hartzen ditu baita: akrobaziak, dantza,



Zirkuarekin hara eta hona ibili da azken zortzi urteotan Iker Galartza. HIRUKA

antzerkia... Ahal dugun jende gehienari aukerak ematen saiatzen gara, baina denak ez dira kabitzen. Dena dela, oso pozik gaude sortu ditugun aukerengatik. Guraso batek galdetzen zidan, seme-alabak zirku-eskolara joanez gero, handik zenbat bizi ahal izango ziren zirkutik; ba ez dakit, gutxi izango dira, baina zenbat lagunek egiten dute futboleko Eibarren eta zenbatek jokatu dute lehen taldean? Zirkua, futbola bezala, kirola da, baina baita gauza gehiago ere, artea adibidez. Gauza ona da gazteentzat, gozatzeko aukera ematen die eta afizio ona da.

Zure ustez, Gure Zirkuak nolako ekarpena egin dio euskal kulturari?

Ezerezetik kultur eragile bat gehiago izatea lortu dugu. Antzerkia dago, musika, dantza... eta horiek guztiek koktel-ontzian sartuta irteten da zirkua. Gure hizkuntzan gure herrian ez zegoen horrelakorik, nahiz eta batzuek antzerkia egiten genuen, beste batzuek dantza, besteek komedia, eta abar. Umiltasun osoz, baina zirkua beste eragile kultural bat gehiago izatea lortu dugu, besteen parekoa eta arrakasta edo erantzun berarekin.

Nola lortzen duzue publiko guztietara heltzea?

“Umiltasun osoz, baina zirkua beste eragile kultural bat gehiago izatea lortu dugu, besteen parekoa eta arrakasta berarekin”

Lan asko eginda. Kontu hori oso presente edukitzen dugu parodia, sketch edo saio bat prestatzen dugun bakoitzean. Eskaleta zehazterakoan, erritmoa nolakoa izango den... “Ederra da, baina umeak puntu honetan aspertzen hasiko dira eta beste zerbait egin beharra dago”, pentsatzen dugu; edo, umeentzat gehiegi bideratzen ari garela ikusiz gero, zuzentzen dugu. Oreka bilatzen saiatzen gara beti, hori da gakoa. Umeak, gurasoak eta aiton-amonak gustura egoten saiatzen gara. **Zirkuez euskaraz gozatzeko aukera ematen duzue, baina euskara ez dakien jendea ere joaten da ikustera. Nola lortu duzue hori?**

SARRERAK



Zentzu horretan zirkua antzerkiarekiko ezberdintzen da, adibidez. Antzerkian, hitz egiten bada (antzerki mutua ere badagoelako), hizkuntza menderatzen ez duenarentzat zaila izango da zerbait ulertzea. Zirkuan, ostera, gauza gehiago ulertzen dira, berbarik gabeko gauza asko egiten direlako. Zirkubatek internazionala izaten saiatu behar du. Adibidez, Lekeition, Herbehereetako familia bat etorri zen eta ez zuten galdetu ere egin zirkua zein hizkuntzatan zen. Askok eta askok zirkukarpa ikusi eta sartu egiten dira, beste barik. Bestalde, batzuk harritu egiten dira zirkua euskaraz delako eta, gainera, kalitatezkoa. Agian, pentsatzen dute euskaraz izanagatik zirkua hala modukoa izan beharko litzatekeela.

Zortzi urtez martxan egotea seinale ona da, baina publikoaren erantzuna nolakoa izan dela esango zenuke?

Lanbide honek badauka gauza on bat, eta agian txarra ere guretzat: publikoak zure tokian jartzen zaitu. Publikoa datorren bitartean Gure Zirkua aurrera jarraituko du. Jenderik etorriko ez balitz, gutako asko beste gauza batzuk egiten hasi beharko ginatke, baina datorren bitartean jarraitu dezakegu, eta horrela izan dadila urte askoan.

Eibarren ikusmina sortu du Gure Zirkua etorrerak. Gainera, toki berezian egongo zarete, Arraten!

Ez da lausengu egiteagatik, baina Eibarko kultur teknikarien alde egin behar dut. Askotan kultur teknikariak urteroko errutina zehaztuta dute eta hortik ateratzea batzuetan ez da erraza izaten, eta herritarrek tiratu behar izaten dugu. Kasu honetan, demaseko ahalegina egin dute Gure Zirkua Eibarrera ekartzeko. Orain dela pare bat urte Pospolorekin (Jose Luis Gonzalez) eta Asierrekin (Lopez de Viñaspre) berba egin genuen eta toki bila ibili ginen, aurkitu ezinik. Beste edozein herritan kultur teknikariak amore emango lukete, baina Eibar-koek jarraitu egin dute eta Arraten egitea proposatu ziguten. “Itzuliako trailerrak igotzen badira, zuenak ere igo ahalko dira, ala?”, esan ziguten. Orduan, bakoitzak bere aldetik jarri eta arriskatu du, eta horra goaz. Orain Zornotzan gaude, herriko sarrerako aparkaleku batean, denon bistara. Horrelakoetan, zirkua muntatzen duzu



“Irribarretsu eta emozionaturik egoteko ordu eta erdi izango da, sentimenduak dantzan jartzeko modukoa”

eta, karpa dagoela ikusterakoan, sarrerak bakarrik saltzen dira. Arraten inork ez gaitu ikusiko eta lan handiagoa egin beharko dugu sarrerak saltzeko, baina Udalak bere aldetik jarri du, guk ere, eta aurrera!

Oraindik ez dakienarentzat: Zer aurkitu dezake Gure Zirkua karpa barruan?

Zerbait tipikoa edo topikoa izan daiteke, baina magia aurkituko du. Gure Zirkua karpasartzerakoan mundu magiko batean murgiltzen zara. Gainera, aurtengo magia horri alaitasuna gehituko nioke. Irribarretsu eta emozionaturik egoteko ordu eta erdi izango da, sentimenduak dantzan jartzeko modukoa.



MODA ETA EDERTASUNA

2025/06/06

Herriko saltokiek udaz gozatzeko behar dugun guztia eskaintzen
digute: moda, osagarriak, oinetakoak, edertasun produktuak...

Dena oso kalitate onarekin eta azken joeretara begira beti.

Gozatu herriko modarekin!



Gozatu modarekin!!!

Uda honetako koloreak

Kolore elektrikoak eta fluorra. Lima berdea, fuksia, hori neoia eta laranja dira protagonistak, batez ere bikini, poltsa eta topetan. Tonu neutroekin nahasten dira orekatzeko (harea, zuria, harria).

Soineko zabalak

(gerrikoarekin eta gabe)

Urteetan gora egin ondoren, argi dago soineko arinak jantzi atenporal gisa nagusitu direla. Hala ere, horietako batzuk besteen gainetik daude: gerruntze edo korpiño estukoak eta bolantezko gona dutenak. Gerrikoarekin edo gerrikorik gabe, bero handiko hilabete hauetan aukera bikaina izango dira.



"Coastal Cowgirl" estiloa

Hondartzako bohoaren eta western ukituaren arteko nahasketa: gona arinak, cowboy botak eta lastozko kapelak.

Denim txalekoak eta parpailadun soineko luzeak ere ikusiko ditugu.

Nortasun handiko blusak

Boho blusak modan daudela esatea ez da berria, ia denda guztien proposamenen artean daude-eta. Hala ere, estilo honetakoetatik harago, xehetasun bereizgarriak dituztenak ere (Vichy koadroak bezalako estanpatu deigarriak, edo bolanteak edo parpaila bezalako apaingarriak), gutxienez udazkenara arte geratzeko iritsi dira. Beheko zati oinarritzkoekin konbinatuta emaitza bikaina da.



CAPI Bidebarrieta, 5 943 201 547
www.capiestetica.es

AURPEGI TRATAMENDUAK
Azalaren diagnostiko zehatza
Skin-touch

GORPUTZ TRATAMENDUAK
Gorputzaren birmoldaketarako behin-betiko konponbideak:
- IZTERRAK
- IPUE-MASAILAK
- BESOKAK
- SABELALDEA

**- MANIKURAK
- PEDIKURAK
- BETILE LUZAPENAK
- LIFTING**

GLUP

San Agustin, 2
629 526 767
@glowupeibar



Urre-koloreko eta perlazko xehetasunak

Osagarrietan, sandalietan eta makillajeetan ere bai.

Aire glamuratsua ematen du, udako freskotasuna galdu gabe.



Ehun naturalak

Lihoa, kotoi organikoa, crocheta eta ehun zulatuak. Freskotasun- eta iraunkortasun-sentsazioa ematen du.



Zuria nagusi

Zuria da protagonista soinekoetan, jantzietan, lihozko multzoetan. Denboraz kanpoko eta lagungarria, bereziki larruazal beltzaranetan.

Fluor koloreak bainujantzietan

Denboraldirako bainuko joerak markatuko dituzte fluor kolore horiek: lima berdea, laranja neoia, arrosa fuksia, hori elektrikoa, urdin elektrikoa. Kolore beltzarena indartzen dute. Estetika bizia eta alaia ematen dute, ezin hobeja jaialdietarako, hondartzetarako eta igerilekuetarako.

Kirol estilokoak ere ikusiko dira uda honetan: crop motako topak eta gerri altuko bragitak. Bestalde, xehetasun metalikoak edo fluoreszenteak beltzarekin konbinatuta.

Gizonezkoen bainujantzietan ere fluor koloreak eta elektrikoa daude. Hondartzertan estanpatu tropikalak (palmondoak, hawaiar loreak, itsas fauna) ikusiko ditugu, eta baita *retro* diseinu geometrikoak ere: marra bertikalak, koadro handiak..





2025erako udako estetika aholkuak

- Eguneroko eguzki-babesa.

Funtsezkoa da, baita egun lainotsuetan ere.

Gomendioa: SPF 30 gutxienez, espektro zabalekoa.

Gel edo lanbro motako testura arinak, larruazal mistoetarako/koipeetarako ezin hobeak.

- "Azal biluziko" makillajea.

Base arinak SPFrekin. Koloretea kremak, argitzaile arina eta ezpainak glosekin. Geruza lodiak saihestu; look naturala eramaten da.

- Hidratazio etengabea.

Azido hialuronikoa edo aloe vera duten serumak.

Aurpegiko lainoztagailuak, egunez freskatzeko.

Ur asko edan, barrutik ere zaintzeko.

- Azazkalak eta oinak zainduta. Udako esmalteak dituzten pedikurak: korala, zuria, menda edo nudeak.

Nail art minimalista urrezko edo lore xehetasun txikiekin.

- Ile osasuntsua eguzkipecan

UV iragazkia duten ile-babesak erabili. Txirikordak, motots solteak eta zapiak: eguzki-kaltea saihesten duten estilo erosoak. Astero ilea elikatu maskarillekin.



Laguinda
-JANTZIDENDA-

Bidebarrieta, 18
943 20 84 41

E.
IBONE
ESTETIKA



ROMUALDO GALDOS



943 20 16 01



SOUL
estilistak

Errebal, 20
www.peluqueriasoul.com
943 567 232



IRRITSA

@irritsa

Ibarkurutze KALEA, 6

IRRITSA

943 12 71 06



EKHI BELAR

Ezin da ezer esan

Zezenzaleek esaten duten bezala, “a puerta gayola” hasiko dut artikulua. Ez naiz zezenzalea, baina erreferentzia horrek zentzua hartzen du esaten badut Andres Calamaro izan dela inoiz gehien eragin didan musikaria. Gaur egun pertsonaia jasanezina (besteak beste) iruditzen zait, baina zer egingo diogu ba!

Tira, kontua da orain dela pare bat aste, Cali-n (Kolonbia) kontzertua eskaintzen ari zen bitartean, bere emanaldietan ohikoak bihurtu diren zezenketen aldeko aldarriak egin zituela. Publikoak ez zituen ondo hartu argentinarraren berbak eta txistuka hasi zen. Noski, Calamaroren egoa edozein buila baino handiagoa da eta eszenatokia laga zuen: “Kantzelatuta zaudete, zoazte betiko!”. Erantzun bitxia adierazpen askatasunaren aldeko aldarri sutsua egiten duen artistarentzat. Adierazpen askatasuna bai, baina nirea bakarrik. “Gauza politikoki zuzenak eta kantzelazioaren kultura eldarniozko kotetara iristen ari dira”, esan zuen behin Calamaro berak. Bai Andres, noski, orain ezin da ezer esan.

Pablo Motos eta Iker Jimenez bezalako enparauek ere hori bera diote, eurek zuzentzen eta agintzen duten programetan, telebistaren beste aldean milioika ikusle dituzten bitartean: “Gaur egun ezin da ezer esan”.

Berri txarra eurentzat: gaur egun mezuak norabide bakarrekoa izateari laga dio eta gizarteak baditu ahalduntze eta modu nahikoak ondo iruditzen ez zaizkion mezuei aurre egiteko. Are gehiago, hainbestearainokoa da gizartearen iritziaren indarra, Israelek Palestinan egiten duena orain arte gutxienez zuritu eta gehienez babestu duten hedabide erraldoiek ere, bat-batean, inongo lotsa barik, 180º-ko bira eman eta genozidioa salatu behar dela adierazten hasi direla.

Caitlin Johnstone kazetari australiarrak egin duen ikerketak, Argian irakurgai dagoena, The Financial Times, The Economist, The Independent eta horrelako hedabideek Israeli buruz idatzitako azken editorialetan egon den norabide aldaketa aztertu du. Munduko hedabide boteretsuenak orain konturatu dira bi urtez euren begien aurrean gertatzen ari den hori zer den? Ala, Johnstonek dioen bezala, “usaindu dute haizeak zer dakarren”?

Hedabideen boterea zenbaterainokoa den ez dut deskubrituko, baina hedabide independenteekin eta sare sozialek, paradigma aldatzen ari ote da? Horrela bada, bai, Andres, badugu asko esateko.

“Gaur egun, gizarteak baditu ahalduntze eta modu nahikoak ondo iruditzen ez zaizkion mezuei aurre egiteko”



Jeronimoko jostailuen istorioa amaierara iritsi da



Fermin Calbeton kaleko Jeronimo jostailu-dendak atea itxi zituen maiatzaren 31n. Dendako azken arduradunak, Nerea Zabala Etxeberriak, erretiroa hartu du eta berarekin joan da 125 urteko historia. Azken hilabeteotan hainbat ikur galdu ditu herriko merkataritzak eta ziur gaude agur honekin heldu askoren barneko haurrak malkoren bat edo beste botako duela.

BIDEOA



Ehun urte baino gehiagoko historia zuen Jeronimo dendak. “Uste da 1920. urtean nire aitonak etxetresna elektriko txikien denda zuela Isasi kalean. Irratiak saltzen eta konpontzen zituen”, diosku Nerea Zabala Etxeberriak. Jeronimo zuen izena bere aitonak eta horrela jarri zion dendari, gaur egunera arte izen berari eutsiz. Isasiko lokala, oster, berehala laga zuen. “1928. urte inguruan Fermin Calbeton kaleko 11. zenbakira pasa zen”, azaldu digunez, eta salgaiak ere aldatu zituen, “drogeria, bitxi-denda eta jostailu-denda bihurtuz. Bazar moduko bat zen, pixka bat denetik saltzen zelako”.

Orain dela hogeitau urtera arte, Jeronimo drogeria eta jostailu-denda izan zen, eta orduan drogeriaren arloa laga eta bakarrik jostailu-denda bilakatu zen. Mugarria izan zen dendarentzat, ez salgaiak aldatzeagatik bakarrik, lokal berria ere hartu zutelako, Fermin Calbeton kalean bertan, baina 5. zenbakian. “Lokal zaharraren eraikina eraitsi egin zuten eta lokal hau hartu nuen. Lokal zaharrean jostailuen bila ibili behar ginen, bezeroei erakusteko eta abar; hemen, oster, denen bistara eduki ditugu apaletan. Lokal zaharrean hemen baino hiru aldiz gehiago egiten genuen lan”, diosku dendari ohiak.

Makinen eragina

Hamarkada ugari bizi izan dituen jostailu-denda izanik, bolada ezberdinak igaro ditu negozioak. “Jostailuen ibilbidea zaila izan da. Beno, zaila ez, guk egiten dugu zaila, umeak ume direlako eta opari guztiek egiten dietelako ilusioa”, Zabalaren berbetan. Baina argi ikusi du jostailuen munduak elektronikaren bidea hartu duela (“Play Station, Nintendo...”).

Bestelako jostailuetan ere aldaketak egon direla dio, baina mugikorren eragina azpimarratuko luke Jeronimo azken arduradunak. “Mugikorretan joko eta jolas asko dago eta, zoritxarrez, oso txikiak direnetik ematen zaie mugikorra umei”, bere ustez. “Jostailuekin jolasten jarraitzen dute, baina makinek tokia jan egin dute. Kontua izan behar da makinekin. Gauza da gaur egungo gurasoak ere makinekin hazi direla; beraz, zaila da umei beste zerbait ematea. Pandemiak onurak ekarri zituen zentzu horretan, elkarren artean jolasteko aukera eman zuelako”, diosku.

Nostalgia justuarekin

Jeronimo Etxeberria emaztea Esperanza Valdiviesorekin arduratu zen dendaz lehenengo urteetan, eta ondoren alaba Matildek eta Ciriaco Zabalak hartu zuten lekukoa, Nerearen gurasoek. Gero, azken honek hartu zuen dendaren ardura. “Gaztetan nahiko alperra nintzen, eta hara eta hona ibiltzen nintzen”, diosku umoretsu. “Jostailu artean hazi izan naiz. Familiak negozioa zuenez, beti ibili izan nintzen laguntzen eta, ikasteko orduan nahiko alperra nintzenez, hogeita gutxi urterekin lanean hasi nintzen”.

Zabalarentzat urte asko izan dira dendan lanean eta harreman estua egin du bezeroekin. “Dendako hirugarren belaunaldikoa naiz eta aiton-amonak, gurasoak eta seme-alabak ezagutu ditut. Ume bezala ezagututako asko gaur egun guraso dira”, azaldu digu.

Dena dela, ez du pena handiz laga dendaren jarduna. “Nostalgia justuarekin lagatzen dut denda. Hori argi nuen. Banekien horrela amaitzen zela nire lanaren zikloa. Gainera, gaur egun bizi dugun sasoia ez zait gustatzen. Sare sozialak gorroto ditut, ez dut nire burua horrelakoetan ikusten eta gaur egun asko saltzen da sare sozialen bitartez”, aitortzen digu Zabalak.

Jeronimo husten harrapatu arren, oraindik jostailu batzuk zenbiltzan dantzan sarreran. Jostailuz beteriko hainbat poltsa zituen bertan eta, berak horren publizitaterik egin nahi ez arren, esan beharra dago entitate sozialei emango diela saldu barik gelditu diren jostailu horiek, beste hainbat alditan egin duen bezala. Adibidez, ...eta kitto! Euskara Elkarteari hainbat poltsa eman dizkio Arrateko Jaietan antolatzen duen tonbolarako.

Mila esker Nerea, eta mila esker Jeronimo, hainbeste urtetan zehar umeen artean ilusioa zabaltzeagatik!



Jeronimo Etxeberriak Isasi kalean zabaldu zuen lehen denda eta gero bi toki ezberdinetan egon da Fermin Calbeton kalean



Maiatzaren 31n Jeronimo itxi zuen Nerea Zabalak, eta dagoeneko hustu du denda. EKHI BELAR

Ipuruako kadete B taldeko gimnastak Euskadiko txapeldun

Aurreko zapatuan jokaturako Euskadiko Amateur Txapelketan, Marc Gabilondo, Arrate Aizpuru, Lur Bil-

bao eta Ainhize Iturraranez osaturako taldeak egindako lanak ondo merezitako saria jaso zuen, onenak

izan eta txapela janztearekin ginga jarri baitzioten denboraldi amaiera ezinhobeari. Bakarkakoetan, gainera, jubenil B mailako Irati Unamunok eta Olatz Vieirak osaturako bikoteak urrezkoa jantzi zuen; zilarrezkoa irabazi zuten kadeteetan Ainhize Iturraran eta June Etxanizek osaturako bikoteak, eta brontzezkoa Iraia Callesek; eta jubenil A mailan sailkapen orokorreko brontzea bereganatu zuen Yuma Otalvarok.

Denboraldia amaitzear dagoen honetan oraindik hitzordu garrantzitsua du Ipurua klubak: Espainiako banakako txapelketa, Guadalaran jokaturako dena ekainaren 18a eta 22a bitartean. Bertan izango da senior mailako Haizeder Argui.



Ipuruako klubeko ordezkariak podiumaren gorenean Euskadiko txapela irabazi ondoren.

Pirinioetarako mendi-irteera antolatu dute hilaren 14 eta 15eko astebururako

Irteera horretan Pico Serrato eta Diente de Batanes Norte egingo dituzte. Lehenengo egunean, zapatuan, Baños de Panticosatik Bachimaña aterpera joango dira, tartean Pico Serrato eginez; 10 kilometroko ibilbidean metaturako 1.250 metroko desnibel positiboa eta 715eko negatiboa izango dute. Bigarren egunean, domekan, Bachimañatik Baños de Panticosara itzuliko dira, tartean Diente de Batanes Norte eginez; horko horretan, 11 kilometroko ibilbidean, desnibel negatiboa positiboa gaitutako du (1.205 eta 700 metro).

Deporreko mendi-batzordekoek Elgoibarko Morkaikoekin antolatutako irteera hilaren 14ko goizaldean abiatuko da Eibartik eta prezioak honakoak dira: 145 euro bazkide federatuentzat eta 165 ez federatuentzat. Komeni da izena

lehenbailehen ematea, plazak mugatuta daudelako.

24. Itzulia eta Finalista Eguna

Bihar eta etzi, bestalde, mendiarekin lotutako egun bereziak biziko ditugu herrian. 24. Eibarko Mendi Itzulia egingo da zapatuan: itzuli osoa egingo dutenek 34 kilometroko ibilbidea osatuko dute eta izango da beste bigarren aukera bat ere, 18



kilometro eta erdikoa. Etzi Klub Deportiboko Finalista Eguna ospatuko dute, Arraten mendiko dominak banatu eta egitaraua osatuko duten beste hainbat batzorderen ekitaldiekin osatuta.



Aurreko zapatuko mendi-irteeran parte hartu zutenetako batzuk Adi tontorrean.

Amañako Tigrea gogoan izango duen boxeo-gaua gaur Astelenan

Astelena pilotalekuak Sanjuane-tako egitarauaren barruko boxeo-gaua biziko du gaur, barixakua, maila handiko boxeolari eta borrokalariekin. Ordiziakoarekin batera Euskadiko boxeo-esparruan ibilbide luzeena duen ekitaldiak boxeoko amateur mailako bost borroka eta wushu modalitateko beste hiru hartuko ditu, azken horiek II. Eibarko Hiria Sanda Kopakoak.

Gure herriko Ttatt gimnasioaren eta bertako Montxo Quinaren eskuz antolatutako jaialdia 22:15ean hasiko da eta bertan egingo du debuta Amer Agbalou ikasle gazte eibartarrak. Emakumezkoen boxeokoak ere izango du presentzia ekitaldian, borroka batekin. Bestalde, sanda modalitateko Amañako Tigrea II. Kopako finalaurrekoak eta finala



Jaialdia osatuko duten zortzi borroken kartelak herrian ikusten dira dagoeneko.



jokatuko dira, Ttatt gimnasioko Ion Leal eta Yago Dominguezen parte-hartzearekin; Omar Mahmoud iruñarra eta Castellongo Manuel

Caro izango dituzte aurkari. Sarrerak salgai izango dira leihatilan: aulkikoak 18 eurotan eta harmailetakoak 15etan.

Hiru domina Deporrekoentzat Euskadiko eskolarteko atletismo txapelketan

Lau ordezkari izan zituen Eibarko Klub Deportiboko atletismoko taldeak aurreko zapatuan Gasteizko Mendizorrotzako instalazioetan jokotutako Euskadiko eskolarteko txapelketan. Laukoteak Gipuzkoako selekzioarekin hartu zuen parte infantil mailako lehiaketan. Lortutako emaitzak ia paregabeak izan ziren, disko jaurtiketan Naia Astigarraga eta Jone Gerrikagoi-

tia lehen bi postuetan sailkatzeaz aparte, Unai Alvarezek brontzea irabazi zuelako altuera jauzian eta Jare Arsuaga podiumetik ezin gerutuago geratu zelako pisu jaurtiketan, laugarren sailkatuz. Beraz, lau ordezkari eta laugarrena izateko posturik txarrena; diskoan Astigarragak Euskadiko txapela janzteaz aparte. Jardunaldiak esperientzia bikaina eskaini zien atleta gazteei.



Futbol-zaletuko txapeldunen arteko finala domekan

Etzi Eibarko eta Ermuko futbol-zalatuaren Ligetako txapeldunen arteko norgehiagoka jokatuko da, horrela erabakitzeke zein den aurtengo txapeldunen arteko txapelduna. Oraingo hau 12. edizioa izango da eta Ermuan, 10:00etan hasita, indarrak neurtuko dituzten taldeak Ermuko Dragones Negros eta Eibarko Malape Taberna izango dira.



Hiru bandako billarraren San Juan Txapelketa jokatu da etzi

Casino Artista Eibarres billar klubak antolatuta, domekan San Juan Txapelketaren laugarren edizioa



izango da jokoan klubak Eibarko Bizikleta Plazan dituen instalazioetan. Arratsaldeko 17:00etan abiatuko dira finalaurrekoak eta handik bi ordura, 19:00etan, jokatuko da torneoaren finala. Jarraian sari-banaketa ekitaldiari emango zaio paso, eta hor sariak izango dira txapeldunarentzat, txapeldunordearentzat eta ikasturte honetako promesa mailako onenarentzat.

Hiru bandako edo hiru bandara jokatzen den billar modalitatean 200dik gora lagun izan dira parte hartzen hiru hilabete baino gehiago iraun duen lehiaketan, eta eurretatik azkeneko fasera 28 billarista heldu dira. Sarrera libre da; beti ere, aforoa bete arteko tartean, hau da, edukiera mugatua dago.



Ugaitz Gartzia junior onena Mutrikun

JAZ Eibar Triatloi Taldeko ordezkariak 16. postuan amaitu zuen Mutrikuko proba eta, junior onena izanik, podiumaren gorena ere eskuratu zuen. Beste hiru taldekidetik amaitu zuten kostaldeko herriko triatloia eta guztiek egindako lan onak taldekako sailkapeneko seigarren posturaino eramán zien. Iñigo Gastonek 61. postuan amaitu zuen, Roberto Gartzia 67. ean, eta Alberto Agirrek lortutako 100. tokiak beterranoen V3 mailako bigarren izatea ahalbidetu zuen.

II. Urtzi Rugby Eguna egingo dute bihar

Urtzi Abantzabalegi zenaren omeneko jai-egitarauak honako ordutegiari jarraituko dio: 15:30ean Urtziaren omenegindako murala inauguratuko da Unben; 16:00etatik aurrera, 12 eta 10 urtez azpikoak partidua jokatuko da Eibar RT eta Ordiziaren artean; 16:30ean open errugbi partidurako taldeen zozketa egingo da; eta 17:00etan

Open errugbi partidua jokatuko da. Egitarauaren zati hori amaituta, herrira jaitsi eta 3. denborari ekingo diote, 19:30etik aurrera Guridi Rugby tabernan. Pintxoak eta musika zuzenean izango da bertan eta 21:00etan doinu horiek kaleetara zabalduko dira kalejirarekin. Egun berezia izango da biharkoa ere haren lagun eta ingurukoentzat.

Urbateko gaztetxoek ere Espainiako Txapelketara

Gure herriko Urbat klubeko infantil mailako taldeak waterpoloko Espainiako Txapelketa jokatzeke txartela eskuratu du Ligako azken partidua irabazi eta gero. Aipatutako txapelketa Malagan jokatuko da ekainaren 19tik 22ra eta jokalariai pozarren daude lortutakoaz.



Mek Eibar-entzat eskubaloiko Gipuzkoako Kopa txapelketa



Elgoibarren aurreko zapatuan jokatuako finalean Bera Berari final zirrargarrian 26-28 irabazita, Mek Eibar Eskubaloiko emakumezkoen lehen taldeak Gipuzkoako Kopa bereganatu zuen. Titulua lortzeko bidean, armaginak B multzoko onenak izan ziren Malape Taberna Elgoibar eta Irauli Bosteko taldeen aurrean garaipen argiak eskuratu. Ondoren, behin finalerdietara iritsita, Mek-ekoek euren onena eman behar izan zuten Leizaran talde in-

dartsuari irabazteko (26-24) eta, horrela, finalerako txartela esku-ratu zuten. Errepikatzeko moduko denboraldia egin dute.

Ez dute zorte bera izan Eibar Eskubaloiko harrobiko taldeek jokatuako beste bi partiduetan. Infantil mailako nesken taldeak Vinos Atxegii Orio Eragin taldearen aurrean amore eman zuen bitartean, maila bereko mutilen taldea ere galtzaile izan zen Mail Boxes Zarautz Group ZKE-ren aurrean.

SD Eibar Fundazioko PC taldeak ekainaren 21ean jokatu du finala Madrilen

PC Futboleko Liga Nazionalean jokatzeko duen SD Eibar Fundazioko taldeak dagoeneko badaki noiz jokatu duen aurretik maiatzaren 10erako iragarrita zegoen txapelketako finala. Futbol 7 PC Ligako final hori Vila Nova ila Geltrún zen jokatzekoa, baina bertako instalazioen ondoan izandako suteak eta

harek eragindako hodei toxikoak final hori bertan behera lagatzera behartu zuen. Aurretik, dena dela, Eibarko taldea erraz nagusitu zen Hércules Paralímpicoren aurka jokatuako finalerdian, 5-0 irabaziz. Hilaren 21ean Madrildo Pinto herrian jokatu da final hori, arratsaldeko 16:00etan hasita.



ESKERTZAK ETA URTEURRENAK

Urkizu, 11 - solairuartera
688 62 76 89
publizitatea@etsakitto.eus

FUNEUSKADI Gipuzkoako	FUNERARIA MUGICA Funeraria
TANATORIO EIBAR	TANATORIO EIBAR
24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 www.funeuskadi.com	
Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xelion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Sibabarrieta, 20	Ernuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16
Eibar - Elgoibar - Ernuak - Bilbo - Barakaldo - Leioa - Getxo - Sestao Portugalete - Santurtzi - Basauri - Galdakao	

Badator futbol 7-aren festa handia

Azken urteotan fenomeno ikusgarria bihurtu den IPQ Futbol 7 Txapelketa jokatu da datorren zapatuan, hilaren 14an, Unben. Kuadrilla batek antolatutako torneoak ehundaka lagun biltzen dituen txapelketa bilakatu da, eta aurten ere irudi ahaztezinak lagako dizkigula aurreikusi dezakegu. Taldeak lehiarako prest daude dagoeneko, baina batez ere ondo pasatzeko gogoz.



Unai Arizaga Zuazo IPQ Futbol 7 Txapelketa antolatzen hasi zen kuadrillako kideetako bat da. “2021ean Sanjuanetan kuadrillen arteko jokoak antolatu behar genituen; baina, zezen plazaren egoera zela-eta, ezin izan genuen bertan ezer egin eta beste gauza batzuk egiten saiatu ginen, baina ez ginen akordio batera iritsi. Gutako batek futbol 7-ko torneoak egiteko proposamena botatu zuen eta aurrera egin genuen. Lagunak eta inguruko beste batzuk arituko ginela uste genuen, ez genuen pentsatzen gaur egun bilakatu dena izango zenik”, azaldu digu.

Txapelketak demaseko bolumena hartu du eta antolakuntza bera ere erronka handia bilakatu da, baina hasierako kuadrilla berak jarraitzen du den-dena prestatzen. “Lan handia egin beharra dago, baina txapelketaren egunean eibartarron artean dagoen elkertasuna, lehia sana, jai giroa eta jendearen ilusioa ikusita, merezi du eta antolatzen jarraitzeko motibatu egiten gaitu. Lana da, baina lagunaren artean egiten dugu eta antolatzen ere ondo pasatzen dugu”, diosku Arizagak.

600 lagunetik gora

IPQ Futbol 7 Txapelketaren laugarren edizioa jokatu da hilaren 14an. Iazko formatuari eutsiko diote eta guztira 40 taldek hartuko dute parte. Hau da, 600 lagunetik gora arituko dira futboleko Unben. “Zazpi talde txapelketatik kanpo laga behar izan ditugu, ez zegoelako guztiontzako tokirik. Denbora kontuagatik

BIDEOA



da. 09:00etan ematen diogu hasiera torneoari eta 20:00 inguruan amaitzen dugu, gero afaria dugu-eta. Beraz, ezin dugu talde gehiago sartu, ez zigulako dena egiteko denborarik emango”, argitzen digu Arizagak. Egun osoan zehar eten barik jokatu dira partiduak Unbeko goiko (multzoetako partiduak bakarrik) eta beheko zelaietan, partidu bakoitza zortzi minutuko bi zatitan banatuta.

Txapelketaren formatuari dagokionez, 40 taldeak 8 multzotan banatuko dituzte (maiatzaren 24an Coliseon egin zuten multzoen zozketa) eta multzo bakoitzetik lehen bi taldeak final zortzirenetara sailkatuko dira. Hortik aurrera kanporaketak jokatuko dituzte, final nagusira iritsi arte. “Kanporatutako taldeak Unben geratzen dira beste partiduak ikusten eta demaseko zalaparta sortzen da”, diosku Arizagak. “Futbolearen egin ez arren, Unbera datozenak txapelketaren parte izaten saiatzen gara. Horregatik, iaz DJ bat ekarri genuen, taberna jartzen dugu...”, gehitzen du. Gainera, autobusak jarriko dituzte egun osoan zehar Unbera igotzeko aukera eskainiz.

Iazko edizioan emakumezkoen talde bakarra egon zen eta aurtur sei egongo dira. “Emakumeen artean ere txapelketa indarra hartzen hasi da”, Arizagaren berbetan.

Lehia sana eta jai giroa

Txapelketa izanik, lehia ez da faltako, baina Arizagak dio anaitasun giroa izaten dela nagusi: “Pikea dago, baina sana. Aste hauetan, poteoan, talde ezberdinetako jendea hasi da pikatzen eta abar, baina



Ehundaka eibartar arituko dira futbolearen IPQ Futbol 7 Txapelketan, hilaren 14an, Unbeko bi zelaietan



lazko edizioan demaseko giroa bizi izan zen Unben. Futbolearen aritzeaz gain, jai giroa sortzen baita. IPQ

inoiz ez dugu arazorik eduki. Giro sana dago. Azken finean, guztiok gara eibartarrak, urte osoan zehar elkar ikusten dugu eta guztiok gara ezagunak”. Gainera, kuadrillen arteko lehia izaten jarraitzea nahi dute, inongo fitxaketarik egin gabe. “Horretarako mugak jartzen ditugu. Kontrolatuta dugu, eibartarrak izanik denak ezagutzen baititugu. Ez dugu futbol txapelketa handi bat izatea nahi, onenek bakarrik jokatzen duten torneo bat, baizik eta eibartarren elkartasuna sustatzen duen txapelketa”, Arizagak dioenez.

Sariei dagokionez, txapelketaren irabazleak 700 euro eskuratuko ditu eta azpitxapeladunak 250 euro. Txapelketatik kanpo, ostera, badira beste sari batzuk ere. “Txapelketa osteko afarian bestelako sariak ematen ditugu: atezain onenari, gol onenari, pertsonaia esanguratsuenari, gaueko MVP-ari... Orain arte pertsona bakarrak irabazi du azken sari hori eta ez errepikatzea nahiko genuke, baina urtero merezi izaten du. Gaueko Messi da”, dio Arizagak. Lehen edizioan sagardotegira joan ziren 4-5 taldetako jokalariek, “40 bat lagun”, eta iaz 360 lagun elkartu ziren sagardotegian. “Aurtur Errebal Plazan egingo dugu afaria, 500-600 lagun joango garelako. Gainera, Ustekabek girotuko du gaueko jaiaren hasiera”.

Udalaren eta herriko hainbat eragileren laguntza jaso dute txapelketa antolatzeke, baina rifak ere salgai dituzte: 1. sariak bi lagunentzako bidaia irabaziko du, 2.ak janari-otarra eta 3.ak afaria Arkupe jantetxean.



“BUNA: Isiltasun osteko ahotsak” argazki-erakusketa

Egoaziak antolatutako *BUNA: Isiltasun osteko ahotsak* Etiopiako errealitate gordina islatzen duten argazkien erakusketa zabaldu dute Arrate Kultur Elkartean (Topalekun). Ekainaren 27ra arte bisitatu ahal izango da, astelehenetik barixakura, 18:00etatik 20:00etara, eta zapatuetan 10:00etatik 14:00etara. Gaika banatutako 30 argazki biltzen ditu, azalpen-testuekin batera. Gerra, gatazka ondoko eta migrazioko testuinguruetan ibilbide luzea duten Ximena Borrazas, Edgar Gutierrez eta Iñaki Luis argazkilari profesionalak egin dituzte irudiak.



Sanjuanetako doinuak joko dituzte nagusien egoitzetan

Domekan San Andres eta Ego Gain egoitzak bisitatzu emango die hasiera San Juan jaien inguruko ekintzei Eibarko Musika Bandak. Ekainean hainbat saio berezi egingo dituzte musikariek eta lehena domekan izango da: Eibarko nagusien bi egoitzetara, San Andresera (11:30ean) eta Ego-Gainera (12:00etan) joango dira. Andoni Vazquez zuzendariak esan digunez, “sanjuanetako doinuak eskainiko dizkiegu, jaietako giroan murgiltzeko”.



Zinegoak Hedapena hartuko du Andretxeak egunean

Zinegoak jaialdian ikusi ahal izango diren lanetako batzuk Eibarren emango dituzte Andretxean datorren egunean (ekainak 12), 18:00etatik 19:30era. Sarrera libre eta doan izango da. Aniztasunarekin eta kulturarekin lotutako lanak izango dira, emakume zuzendariek egindako ikus-entzunezko laburmetraiak: *¿Dónde estás?* (María Moreno Novoa. Euskal Herria), *Three* (Amie Song. AEB), *Mdb* (Mila Aquilia. Argentina), *Solo Kim* (Javier Prieto de Paula, Diego Herrero. Katalunia), *Inkognita* (Julen Gorosabel. Euskal Herria) eta *Azkena* (Ane Ines Landeta, Lorea Lyons. Euskal Herria).



Mugi Panderoa Eibar BHIko Guraso Elkartearen eskutik

Ekainaren 13an, barixakua, Mugi Panderoak kontzertua eskainiko du Mogel Isasi ikastetxearen kanpoaldean. Eibar BHI ikastetxeko Guraso Elkartek antolatu du kontzertua eta nahi duenarentzat irekita dago. 21:30ean hasi eta pare bat orduko kontzertua emango du talde eibartarrak.



Elkartasun Jaialdia antolatu dute biharko Gaztetxean

Eguerdian hasiko da egitaraua, Indargorri 1987 eta Julien Bizirik kolektiboetako kideek emango duten *Borroka Antifaxista eta Errepresioa* izenburuko hitzaldiarekin. Ondoren, mural-margoketa, luntxa eta *pintxada* egingo dira. Arratsaldeko 19:00etan, berriz, elkartasun-argazkia egingo dute, eta 21:00etan hasiko dira kontzertuak: The Red Army, Inguma, Hoben eta Leekore taldeek joko dute eta, ondoren, musikak jarraituko du, hainbat DJ-ren eskutik.



Rythmachine talde berriaren kontzertua Zai Zoi tabernan

Urtebete eman dute Legarreko lokaletan buru belarri abestiak sortzen eszenatokietara igo eta euren lana aurkezten hasi aurretik. Ekhi Vegas (baxua), Ekaitz Vegas (bateria) eta Gorka Jauregi (perkusioa) hirukote eibartarrari Oier Gurrutxaga (gitarra), Alex Martinez (saxofoia eta flauta) eta Maitane Da Silva (ahotsa) batu zaizkie, Rythmachin taldea osatzeko. Funk-fusio estiloa egiten dute, eta Eibarren entzungai izango dira lehen aldiz. Zai Zoi tabernan emango dute kontzertua bihar (ekainak 7), arratsaldeko 20.00etatik aurrera.



Musika Eskolako bi koruak arituko dira Iruñan kantuan


Udal Musika Eskolako JBG abesbatzak eta Eibarko Koro Gazteak hitzordu garrantzitsua daukate aste-buru honetan: domekan Nafarroa Arenan eskainiko duten *Gora Musika Erraldoia* ikuskizunari ahotsa jarriko diote eta. Iraide Ansorena Musika Eskolako zuzendariak esan digunez, “publikoan 10.000 pertsona inguru espero dira, eta Eibarko txikien eta gazteen bi koru hauek La Pamplonesa Iruñako Bandarekin batera abestuko dute. Banda eta koruaz gain, zazpi konpartsetako 44 erraldoik eta hainbat dantzarik ere hartuko dute parte”.

Datorren barixakuan erreztaldia egingo da Untzaga gizarte zentroan

Datorren asteko barixakurako (ekainak 13) poesia-errezaldia antolatu dute *Poesia... eres tu* taldekoek Untzagako gizarte etxean. Itzamna akademian eratu eta Untzaga gizarte zentroan garatu den taldearen saioa 18:30ean hasiko da.


Poesia eta musika Ibarkurutzen

Bihar arratsaldean izango da Maite Lorenzoren eskutik urtero egiten den Poesia eta Musika Gaua, Ibarkurutzen. 12. edizioa izango da eta, bertiko martxan, Eibarko zein beste herri batzuetako poeten erreztaldiak eta zuzeneko musika tartekatuko dira pare bat orduz, 19:30etik 21:30era.



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA


5			7	6		3		9
						1		
9					8	7	6	
					5	6		4
		5				2		
8		7	9					
	7	9	1					6
		8						
3		4		8	2			5



soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

soluzioa

**ZERTXOBAIT ZAILAGOA**

	4		1					
	2				9	3		
1	5		2				8	
2		5		7				
		4		1		5		
				5		2		7
	1				4		6	8
		9	8				3	
					7		2	

**AURKITU EZBERDINTASUNAK: 7 GOIKOAN ETA 10 BEHEKOAN**

Ekainak 6/12

BARIXAKUA 6

UMEEN EGUNA JHH

18:00/19:30 Sanjuanetan txosnagunean ospatuko den Umeen Egunerako tiket-salmenta. Untzaga (eta gaurtik aurrera Deporren, 1. solairuan, 18:00etatik 20:30era).

MUSIKA

21:00. Reder taldearen rock/punk kontzertua. Beleko taberna.

BOXEO-GAUA

22:15 Amateur mailako bost borrokaldi eta II. Eibarko Hiria Wushu Kopa. Sarrerak leihatilan salgai (18/15 euro). Astelena frontoia.

ZAPATUA 7

MENDIA

07:00 Eibarko Itzulua. Abiapuntua: Eibarko Klub Deportiboa.

BASO BIZIAK EGUNA

09:30 Unbe kiroldegian elkartuko dira, mendi-buelta egiteko. Eibarko Baso Biziak-ek antolatuta.

MINBIZIAREN AURKA

10:30 Zumba, Kaxa Mugimendu eta Sormen Gunearen eskutik.
11:00 Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkartearen 4. martxa solidarioaren hasiera. Ibilbidean zehar, J.B. Gisasola Udal Musika Eskolakoekin. Untzaga.

MARRAZKETA-SAIOAK

11:00/13:00 Urban sketch.
19:30/21:30 Jam-sesion: Giza irudia. Doan. Eibarko Artisten Elkartearekin elkarlanean antolatuta. Ipuruko Merkatu Plaza.

ELKARTASUN JAIALDIA

12:00 Hitzaldia: "Borroka Antifaxista eta Errepresioa". Ondoren mural-margoketa, luntxa eta pintxada.
19:00 Elkartasun-argazkia.
21:00 Kontzertuak: The Red Army, Inguma, Hoben eta Leekore. Ondoren, DJ-ak. Eibarko Gaztetxia.

II. URTZI RUGBY EGUNA

15:30 Muralaren inaugurazioa, Unben.
16:00 12 urtez azpikoen eta 10 urtez azpikoen arteko partida: Eibar R.T. vs. Ordizia Rugby.
16:30 Open Rugby partidarako kapitainak aukeratzea eta taldeen zozketa.
17:00 Open Rugby partida.
19:30 Hirugarren denbora: pintxoak eta musika zuzenean. Guridi Rugby taberna.
21:00 Kalejira, musikarekin.

POESIA

19:30/21:30 Maite Lorenzok zuzendutako poesia-emanaldia. Ibarkurutzeko iturria.

MUSIKA KONTZERTUA

20:00 Rythmachine taldea. Zai Zoi/EzDok taberna.

MUSIKA-SAIOA

23:00 "Los 40 Session", Oskar Martinezen eskutik. Untzaga.

DOMEKA 8

FINALISTA EGUNA

08:30 Abiapuntua: Eibarko Klub Deportiboa.

INTERPRETAZIO ZENTROA

11:30/13:30 Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa zabalik. Arrate (aterpetxea).

MUSIKA

11:30 Eibarko Musika Bandaren emanaldia: sanjuanetako doinuak. San Andres nagusien egoitza.
12:00 Bigarren emanaldia. Ego-gain Gerontologia Zentroa.

ROCIOKO FERIA

12:00 Hasiera.
12:30 Aire Andaluz dantza taldea (Amaña).
13:00 Dantzak, Eva akademiaren eskutik (Eibar).
13:30 Dantzak, Alicia akademiaren eskutik (Galdakao).
14:00 Dantzak, Eva akademiaren eskutik (Eibar): Gipsy Dance.
14:30 Bazkaria.
16:30 Dantzaldia La Piti taldearen eskutik (runbak).
18:30 Galdakaoko Alma Flamenca moda desfilea.
19:00 Talafunken taldearen emanaldia.
20:30 Soineko flamenkoen zozketa.
21:30 Itxiera eta agurra. Antolatzailea: Amaña es la Caña. Amaña.

MUSIKA

12:30 "Pianoarekin bidaiatuz". Isabel Laspiurren ikasleen piano-kontzertua. Coliseo.

BILLAR TXAPELKETA

17:00 IV. San Juan Txapelketa. 3 bandako billarra. Finalaurrekoak.
19:00 Finala. Ondoren, sari-banaketa ekitaldia. Antolatzailea: Casino Artista Eibarres Billar Kluba. Casino Artista Eibarres (Eibarko Bizikleta Plaza).

EGUAZTENA 11

BERBETAN JAIALDIA

17:30 Txondatatxon dibertsioa eta jai ikuskizuna. Musika, dantza, sorpresak... HH eta LHko ume eta familiei zuzenduta. Antolatzailea: ...eta kitto! Euskara Elkartea. Errebal Plaza.



DANTZA

19:00 Estidantza dantza emanaldia. Coliseo.

DANBORRADA

19:00 Danborradaren entsegua, haurrentzat.
20:00 Helduen entsegua. Beistegi eraikina (Bittor Sarasketa kalea).

EGUENA 12

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emailentzat. Untzaga jubilatutako etxea.

ZINEGOAK

18:00 Zinegoak jaialdiko hainbat laburmetrairen emanaldia. Doan. Andretxea.

DANTZA

20:00 Koa Txiki dantza emanaldia. Coliseo.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

• 8an: 20:00
• 9an: 19:30

“Presunción de inocencia”
DRAMA



2024 / Frantzia / 115’
Zuzendaria: Daniel Auteuil
Aktoreak: Daniel Auteuil, Grégory Gadebois, Sidse Babett Knudsen
Thriller / Epailake / Hilketa

2 ARETOA

• 8an: 17:00, 20:00
• 9an: 19:30

“Una función inesperada”
DRAMA



2023 / AEB / 101’
Zuzendaria: Tony Goldwyn
Aktoreak: Bobby Cannavale, William Fitzgerald, Robert de Niro
Autismoa / Road Movie

ANTZOKIA

• 8an: 17:00 (1. Aretoa), 20:00
• 9an: 19:30

“Blindado”
THRILLER



2025 / AEB / 95’
Zuzendaria: David Yarovsky
Aktoreak: Bill Skarsgard, Anthony Hopkins, Ashley Cartwright
Izua / Eszenategi bakarra

ANTZOKIA

• 8an: 17:00

“Peppa. La llegada”
ANIMAZIOA



2025 / Erresuma Batua / 65’
Zuzendaria: Neville Astley
Umeentzat / Musikala / Animaliak



Iñaki Galparsoro Garcia

12. URTEURRENA
2013/06/05

12 URTE
IÑAKI GABE

“Gure bihotzetan jarraitzen duzu”
- ZURE FAMILIA -

Juan M^a Esturo Irusta

18. URTEURRENA
2007/06/09

“Hamazortzi urte dira laga gintuzula, baina gure bihotzetan egunero jarraitzen duzu”
- ETXEKOAK -

943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak, **MAIA-LEN**, bixar 9 urte egingo dozuz eta. Musu bat famelixaren eta, batez be, Markel eta Aitanaren partez.



Zorionak, **PAULTXO!** 4 urte haundi, maittia! Patxo haundi bat famelixa osua eta erraldoiaren partez.



Zorionak, **JONE**, astelehenian 7 urte egin zenduazena eta. Musu haundi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **MARKEL!** Martitzenian 3 urte egin zenduazena eta. Asko maitte zaittugu!



Zorionak, **JULEEN** eta **LUCIA**, hurrenez hurren 3 eta 5 urte bete dozuez eta. Etxeko gure txikixentzat, maitte zaittuen famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **ARALE**, atzo urte 2 bete zenduazena eta. Asko maitte zaittugu, printzesa.



Zorionak, **PABLO**, gaur bertan urtetxua egingo dozulako. Famelixaren eta, batez be, Jol zure anaixaren partez.



Zorionak, **LEA!** Hillaren 3an urtetxua bete zenduan eta! Etxekuok asko maite zaittugu!



Zorionak, gure sorgintxo **JULIA!** Astelehenian urtia beteko dozu eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, Telmoren partez!!!



Zorionak, Guapitox! **JOKIN**ek domekan 22 urte, eta eguaztenean **MIREN**ek 27 urte beteko dozuez eta. Aupa zuek!!!



Alfonso Rodriguez Fernandez

8. URTEURRENA
2017/06/10

"Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa"

- ZURE LAGUNAK -





JOAQUIN Uriguen Aranzabal

2. URTEURRENA
2023/06/08

Elkarrekin bizitako momentuak ez dittut sekula ahaztuko. Betirako zagozle nire bihotzian.

- MAITTE ZAITTUZTET! ZUEN EMAZTIA ETA AMA -



IDOIA Uriguen Osa

10. URTEURRENA
2015/11/08

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskakerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA
1.2. Errentan
• 2/3 logelako pisua bilatzen dut alokairuan, Eibarren edota inguruetan. 607841549.
• Ez galdu Donostiako Aste Nagusia, gozatu giro apartaz! Atikoa alokagai terraza eta itsas bistekin, abuztuaren 8tik 24ra. Ondarreta hondartzatik oso gertu. 3 logela, bainugela eta egongela-jangela-sukaldea. Dena berritzuta (wifia). Igogailuarekin. 688840712.
• 2-3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan. 653214909.

4. LANA
4.1. Lan bila
• Euskaraz eta ingelesez C1 duen unibertsitate ikaslea eskaintzen da umeak zaintzeko. 688605585.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Interna. 642852854.
• Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. 632061519.
• Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. 624416776.
• Administrazio eta Finantzak Graduko ikaslea eskaintzen da, ekainaren 1etik abuztuaren 31ra, administrari laguntzaile lanak egiteko. Esperientzia. 611433467.

- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaindu eta beste edozertan laguntzeko. 631232412.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. 642084800.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. 642025963. Rosa.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburu eta jaietan ere. 623968621. Rosa.
- Emakumea eskaintzen da etxeak, pegorak edo lokalak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. 620757528. Arrate.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta emakumeak zaintzeko. 615931344.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak pasiatzeko. Orduka. 653075865.

4.2. Langile bila
• Emakume interna behar da, beste emakume bat zaintzeko. 671924724. Toñi.

- | |
|------------------------|
| 5. IRAKASKUNTZA |
| 5.2. Eskaintzak |
- Neska eskaintzen da ingeles klaseak emateko. Sei urteko ikasketekin. Umeak ere zainduko litzuzke. 615701749.
 - LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
 - Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
 - DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

UDA IKASTAROA Eibarko Udal Euskaltegian

MAILAK: B2 eta C1

NOIZ: ekainaren 26tik uztailaren 23ra

ORDUTEGIA: 9:00-12:00 eta tutoretzak

EGUNERO : astelehenetik ostiralera

PREZIOA:

- 106 € (deskontuak daude)
- 16 € (2007, 2008 edo 2009an jaiotakoek, C1 mailan)

MATRIKULALDIA: ekainaren 20ra arte

AUTOIKASKUNTZA

MAILAK: B1, B2 eta C1

NOIZ: uztaila eta iraila

NOLA: BAKARKAKO LANA,
TUTORETZAK ETA MINTZA SAIOAK

HABEren deialdi itxira joateko aukera

Eibarko Udal Euskaltegia
Portales Kultur Etxea
Bilata Eder 10 - 2
20600 EIBAR
943300912 / 943300556
euskaltegia@eibar.eus



Neinor HOMES

ARRATE HOMES • EIBAR



Ez utzi **aukera** hau pasatzen, bisitatu orain gure

PISU PILOTUA

2 logelako azken etxebizitzak | 3 logelako etxebizitzak eskuragarri

Obra berriko etxebizitzak:

Gimnasioa • Gourmet aretoa • Garajea • Trastelekua

900 11 00 22 • neinorhomes.com

Errekatxu Berri

BIZIGUNE A

Etxe hau argiz beteta dago. Orain zu baino ez zara falta.

Azkeneko etxebizitzak
305.000€-tik hasita.

BEREHALAKO ENTREGA



 **Loiola**



Informa zaitez
www.loiola.com
900 102 220